

## AUTOGOBERNUARI BURUZKO LANTALDEARI

Unai Urruzuno Urresti EH Bildu taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo **proposamena** aurkezten du Autogobernuari buruzko Lantaldean.

Gasteizen, 2016ko urriaren 12an

Unai Urruzuno Urresti  
EH Bilduko bozeramailea

A decorative graphic of several overlapping, curved green lines that sweep across the right side of the page, starting from the top right and curving downwards and inwards towards the center.

# **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESTATUS POLITIKO BERRIRAKO HURBILPENA**

**Erabakitzeko Eskubidea oinarri duen egitura instituzional burujabea eraikiz**

## Aurkibidea

1.	HITZAURREA.....	
.....	3	
2.	ATARIA.....	
.....	4	
	I.- Euskal Herria: zazpi lurraldeez osatutako nazioa.....	4
	II.-Euskal Autonomia Erkidegoa: erabaki-esparru bilakatutako komunitate politikoa.....	
.....	5	
	III.-Euskal Autonomia Erkidegoaren harremanak gainontzeko euskal lurraldeekiko.....	
.....	6	
	IV.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatu Espainolaren arteko harremanak.....	
.....		7
3.	OINARRIAK.....	
.....	8	
4.	ESTATUS POLITIKO BERRIA: ERABAKITZEKO ESKUBIDEA OINARRI IZANGO DUEN EGITURA INSTITUZIONAL BURUJABEA.....	
	13	
5.	EUSKAL LURRALDEEN ARTEKO HARREMANAK: BERDINEN ARTEKO HITZARMENEN BIDEA.....	
.....	16	
6.	EUSKAL ESTATUA SORTZEKO BIDEA.....	17

## 1.HITZAURREA

Burujabetza ez da euskal herritarren artean aldarrikapen edo asmo berria, eta euskal nazioaren izaerari ez ezik, aldarrikapen zahar eta berri hori euskal lurraldeetan bizi diren herritarren ongizatea bermatzeko eta garatzeko borondateari ere lotuta dago. Historian euskal lurraldeetako biztanleek osatutako komunitatea behin eta berriz bere burua politikoki eratzen eta gobernatzen saiatu da, euskal herritarren bizi baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzeko asmoz. Burujabetza erdiesteko ibilbide horretan euskal herritarrek, sarri askotan komunitate desberdinetan eratuta, egitasmo ugari sortu dituzte, betiere frantziar eta Estatu Espainolaren partetik mespretxua nagusiki erantzun gisa jasoz.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeetan bizi diren euskal herritarrei dagokienez, historia garaikidearen azken berrogeita hamar urteetan bi mugarri izan dira nagusi: 1979. urtean sortuta eta herritar gehiengo zabalak erreferendumean berretsitako autonomia estatutua eta 2004. urtean Legebiltzarrak gehiengo osoz onartutako Euskadiko estatutu politiko berrirako proposamena. Bigarrena, Euskadiko estatutu politiko berrirako proposamena delakoa, 2005. urteko otsailaren 1ean Espainiako Diputatuen Kongresuak ebatzi zuen aintzat ez hartzea. Lehenengoa, Gernikako estatutua deitutakoa, duela hogeita hamabost urte indarrean egon arren, Estatu Espainolak ez du oraindik osatu.

Estatu Espainolak onartu eta hogeita hamabost urte beranduago Gernikako estatutuak –oraindik hogeita hamazazpi eskumen transferitzeke- bete gabe jarraitzen du. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan herritar gehiengo zabala gizarte gisa ditugun erronka berriei eraginkortasun handiagoz aurre egiteko asmoz burujabetza maila handiagoak eskatzen ari denean, Estatu Espainolaren jarrera politikoak azken hogeita hamabost urteetan euskal gizartearekiko begirunerik eza besterik ez du adierazten.

Gaur egun gizarte gisa ditugun erronkak –politikoak, ekonomikoak, sozialak- alde batean, eta haiei aurre egiteko dauzkagun baliabideak bestean, euskal herritarroei desoreka gero eta handiagoa suertatzen zaigu. Horregatik, Gernikako autonomia estatutuaren fasea agortutzat emanez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrek estatus politiko berria behar dutela aldarrikatzen dugu: burujabetza osoa bilduko duen estatus politikoa, hain zuzen ere. Aro garaikide zail honi dagozkion erronka berriek eskatzen dituzten baliabideak behar ditugu, euskal herritar guztieguztiak bizi baldintza duinak baino hobek izan ditzaten. Horregatik tresna guztiak gure esku nahi ditugu. Guztiak. Bati ere uko egin gabe. Eta gaur egun munduan burujabetza mailarik handienak eskaintzen dituen tresna juridiko-politikoa Estatu propioa izatea da. Beraz, Estatu propioa eraikitzeke norabidean gaur egun dauzkagun baliabideak burujabetza-tresna bihurtzeko asmo osoa daukagu.

## **2. ATARIA**

### **I.- EUSKAL HERRIA: ZAZPI LURRALDEZ OSATUTAKO NAZIOA**

Lurralde zehatz bati atxikita bizi diren herritarrek, haien kulturak eta hizkuntzak, batik bat, osatzen dute munduko nazio bakoitza. Euskal Herria ez dugu salbuespen, eta nazioa den heinean, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa izeneko lurraldeetan bizi diren

herritarrek, beraien kulturak eta euskarak -beraien hizkuntzak- osatzen dute. Euskal herritarrek historikoki osagai horiek guztiak bere baitan bilduko zituen egituraketa instituzionala bilatu izan dute.

Gaur egun giza eta kultur komunitatea den Euskal Herria, euskal herritarren nazioa, bi estaturen artean zatituta dago, halaber, Estatu Espainolaren kasuan euskal lurraldea bi autonomia erkidegotan. Nazioa osatzeagatik euskal herritarrei autodeterminazio eskubidea dagokie, haren bitartez independentziari heltzeko bidea emango liokeen egitura instituzional bakarra osatu nahi ote duten demokratikoki erabakiz. Gauzak horrela, Euskal Herriaren lurraldearen zatiketa administratiboan oinarritutako egoera abiapuntu gisa hartuta, euskal eremu administratibo bakoitzetik erabakitze eskubidea gauzatzeko prozesua hasi behar da, herritarrek demokratikoki adieraziko duten borondatea muga bakar gisa ezarriz.

XIX. mendea foruen abolizioaren mendea izan zen, XX. mendea autonomismoaren mendea izan da eta XXI. mendea, ez dugu zalantzarik, subiranotasunaren mendea izango da. Herritarren borondatea beti errespetatzea, prozesu osoan gardentasunez aritzea eta gizarte haustura oro ekidinez, ahalik eta integraziorik handiena bilatzea ibilbide demokratiko honen oinarritzko printzipioak dira.

## **II.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA: ERABAKI-ESPARRU BILAKATUTAKO KOMUNITATE POLITIKOA**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoa. Autonomia erkidego hau eratu zen erreferendumean berretsitako Gernikako Estatutua izeneko lege- agiriaren bidez. Estatu Espainolak ez dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari Gernikako Estatutuan dauden eskumen guztiak transferitu eta, honezkero, ez dirudi duela hogeita hamasei urte hasitako prozesua osatzeko asmorik duenik.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrek 1979. urtean autonomia estatutua onartu izanak ez du ezinbestean autogobernurako ahalmena

garatzen segitzeari uko egitea adierazten, are gutxiago Estatu Espainolak berak -Gernikako estatutuaren arabera- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrei dagokien eskumen maila osatzeko borondate politikorik hogeita hamasei urtetan agertu ez duenean.

Euskal Herria den nazioaren zati izanda, gainerako euskal lurraldeekin batera, autodeterminazio eskubidea dagokio. Halaber, bere lurraldeak -Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa- komunitate politiko gisa eratzeko erakutsia duen borondatean oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoa, edo Euskadi, bere etorkizun politikoa demokratikoki hautatzeko erabaki-esparrua da. Horretarako bere baitan egungo autogobernu maila gaindituz eta euskal nazioaren eraikuntza demokratikoa helburu, trantsizio-prozesua abiarazi behar du.

### **III.-EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN HARREMANAK GAINONTZEKO EUSKAL LURRALDEEKIKO**

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa (Beherea eta Garaia), Lapurdi eta Zuberoa lurraldeek osatzen dute Euskal Herria. Baina Euskal Herria hiru eremu administratibotan banatuta dago, haietatik bi Estatu Espainolaren menpe eta Ipar Euskal Herria -Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa lurraldeez osatuta- Frantziako Estatuaren menpe. Estatu Espainolaren menpe dauden bi eremu administratiboak honakoak dira: Nafarroako Foru Komunitatea (Nafarroa Garaiaz osatuta) eta Euskal Autonomia Erkidegoa edo *Euskadi* (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeez osatuta).

Zazpi lurraldeotako herritarren arteko harremanak historikoki naturalak izan dira -batez ere hizkuntza eta kultura bera partekatzeagatik- eta, Estatuak eta administrazio desberdinek ezarritako traba eta oztupo guztien gaineratik, gaur egun oraindik badira, denboraren poderioz ahuldu arren. Hiru eremu administratibo hauetatik bakoitza maiz gainerako bi euskal eremu administratiboei bizkar emanez eratu baita. Gauzak horrela, garai bateko harreman naturalak denbora pasa ahala ahuldu egin dira, bestelako harremanen mesedetan.

Arabarrek, bizkaitarrek, gipuzkoarrek, lapurtarrek, nafarrek eta zuberotarrek askotan adierazitako borondateari bidea emanez, bada garaia elkarri bizkar emateari uzteko eta Euskal Herria osatzen duten hiru eremu administratibo - Ipar Euskal Herria, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Autonomia Erkidegoa edo *Euskadi*- elkarri begira jartzeko, historikoki bereziak izan diren harremanak berriro berreskuratuz.

Halaber, euskal eremu administratibo bakoitzeko herritarrek beren burua instituzionalki eratzen segitzeko prozesuaren baitan, libre eta demokratikoki erabaki beharko dute zein harreman, elkarlan ala bateratze dinamika maila nahi duten gainontzeko euskal eremu administratiboekin, baita bide horretan Euskal Herria osoa aintzat hartuko luketen instituzioak sortuz -Udalbiltza kasu- eta garatuz ere.

#### **IV.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA ESTATU ESPAINOLAREN ARTEKO HARREMANAK**

Bere lurralde ereduaren egoera krisi politiko larriaren adierazle izan arren ez dago Estatu Espainolean dauden nazioen egoerari dagokionez, aldaketa politikorako borondate nabarmenik. Hala ere, nabarmena da Estatu Espainolean egoera politiko aldakorra dagoela. Espainiako Trantsizioa delakoak aspaldian Estatu sustatzeko ezarritako zenbait zutoin gaur egun kolokan, aldetetarako aukerak agertzen hasi dira, Konstituzioa erreformatzeko ahotsak entzuten hasi dira eta Estatu mailan edota Estatuan dauden nazioetan prozesu konstituziogileak abian jartzeko aldarrikapenak zabaltzen hasi dira. Alabaina, ez dirudi egoera hori alde guztien arteko adostasunez epe laburrean aldatuko denik, azken hamarkadetan Estatu mailako gobernu ardurak izan dituzten indar politiko espainiarren artean Estatuaren zatiezintasunaren inguruan Estatu Ituna baitago. Beraz, ez dirudi adostasunak espainiar Estatuarekiko harremanak ardaztuko dituenik, hots, politikoki desiragarria eta, seguruenez, alde bietako gizarteentzako komenigarria ere izan arren, ez dirudi alde bien -Estatu Espainolaren eta



Euskal Autonomia Erkidegoaren- arteko adostasunean oinarritutako burujabetza prozesuari ekiteko aukerarik izango denik, baizik eta aurrerantzean ere konfrontazio demokratikoan oinarritutako harremanak nagusituko direla.

Zentzu horretan, Euskal Herria, Herrialde Katalanak eta Galiza izaera eta egoera desberdinak biltzen dituzten nazioak izanda, elkarren arteko begirunean oinarritutako prozesu konstituziogileak egin behar dituzte. Denborei, abiaturari eta prozedurei dagokienez, prozesu konstituziogile desberdinak izan arren, guztiek -bide horretan espainiar Estatuaren demokratizazioa lortuz ala ez- beraien etorkizunaren jabe bilakatzea helburu, elkarren arteko sinergia bilaketa etengabea arituko gara.

### 3.OINARRIAK

**Lehena. Estatu Espainolak ez du inoiz Euskal Nazioa aitortuko, ezta hari dagozkion eskubideak ere.**

Historikoki, euskal herritarrek Frantziako nahiz Espainiako Estatuak beraien nazio izaera aitortzea bilatu dute. Bi Estaturen menpe bizi izan diren arren euskal herritarrek mendeetan zehar beraien herri izaera eta jardura berezituak errespetarazteko eskubideak aldarrikatu izan dituzte. Europako mendebaldean demokrazia garaikideak egindako urrats bakoitzarekin batera, Euskal Herrian Estatu Espainolak bere nazio izaera eta haren berezko eskubideak aitortzeko itxaropena behin baino gehiagotan sortu zen. Alferrik, Madrilgo gobernu guztiek, salbuespenik gabe, itxaropen horiek behin eta berriz zapuztu dituztelako. Gaur egun –diktadura frankista amaitu zenetik lau hamarkada igaro direnean- Euskal Herrian jakin badakigu Estatu Espainolak ez duela gure nazio izaera eta ondorioz, dagokigun erabakitzeko eskubidea onartzeko borondate politikorik. Horretarako Estatuaren egiazko demokratizazioari ekin beharko litzaioke eta

ez dirudi epe laburrean Estatuaren demokratizazioaren aldeko indar harremana bideragarria denik. Horregatik adierazten dugu gaur egun Estatu Espainola bere baitan bizi den ezein naziori bere etorkizun politikoa libreki erabakitzen uzteko demokratikoki prestatuta ez dagoela. Beraz, Estatu Espainolarekiko alde bikotasunean oinarritutako harremana (bi alde berdinen arteko harreman gisa ulertuta) bilatzeko bide bakarra Euskal Nazioak –herritar gehiengoaren borondatean oinarrituta- bere burua Estatu Espainoletik kanpo jartzea da.

### **Bigarrena. Erabakitzeko Eskubidea vs. menpekotasun harremanak: mundu osoan demokrazian sakontzeko aro politikoa.**

Mundu osoan ideia bat oztopo eta traba guztien gainetik aurrera egiten ari da: nonahi demokraziaren kontzeptuan sakontzea ezinbestekoa da, demokrazia formala ez baita gaur egun nahikoa, batez ere demokrazia eredu zaharkituak urte luzeetan eliteen interes zehatzei erantzun dienean. Bi poloko mundua amaitzearekin batera, neoliberalismoak mundu osoan demokrazia hezurretan utzi du, hots, itxuraz demokrazia izaten segitzen du, baina askotan demokraziarekiko egiazko antzekotasun bakarra itxura hutsa besterik ez da. Halaber, krisi sistemiko horri aurre eginez, herritar gehiengo zabalen beharretan –oinarritzko eskubideetan, alegia- oinarritutako alternatiba berriak emeki-emeki sortzen eta indartzen hasi dira. Alternatiba horiek guztiak Europan zehar ez ezik, mundu osoan zeharo desberdinak izanda ere, guztien arteko elkargunea erabakitzeko eskubideari ematen zaion gaitasun eraldatzailea da. Edo beste modu batez esanda, herritarrek hautatu ez dituzten erakundeek –Nazioarteko Funtsak, Munduko Bankuak eta Munduko Merkataritza Erakundeak, batez ere- agindutako irizpide edo legeen gainetik herritar xeheen borondateak –borondate demokratikoak, alegia- nagusitu behar duela.

### **Hirugarrena. Herritarren borondateari erantzunez, Estatu Espainolarekiko burujabeak izango diren euskal egitura instituzionalak eta sozialak sortu beharra.**

Euskal herritarren beharrei eta haien oinarrizko eskubideei uko eginez, Estatu Espainolak gure bizitzetan egunero eragiten duten erabakiak hartzen eta gure gogoz kontra inposatzen dizkigu. LOMCE edo lan erreforma azken adibideak besterik ez dira, baina egunero jaikitzen garenetik berriro oheratu arte gure bizitza goitik behera baldintzatzen duten erabaki politikoak Euskal Herriatik urruti hartzen dituzte.

Gure hizkuntza eskubideak, gure hezkuntza eskubideak, gure gizarte eskubideak, gure lan eskubideak, gure kultura eskubideak...egunero ukatzen edo murrizten dituzten erabakiak Madrilen hartzen dituzte. Euskal Herrian ditugun erakundeek –batez ere erakunde autonomikoek- eskumen ugari dituzte, baina ez dituzte inola gizarte gisa nahi dugun orekan hazi eta bizi izateko eskumen nahikorik eta dagoeneko dauzkagunak ahalmenez eta baliabideez husten ari dira. Euskal herritar guzti-guztiak beraien bizitzen alderdi guztiei dagokienez, baldintza duinetan bizi daitezen eskumen guztiak behar ditugu gurean. Euskal herritarren bizitzetan eragingo duten erabaki politiko nagusi guztiak Euskal Herrian eta herritar guztiekin batera hartu nahi ditugu. Ondorioz, demokratikoki, euskal erakundeei dagozkien eskumenei bakarrik euskal herritarren gehiengoaren borondateak muga ezar diezaielike.

### **Laugarrena. Euskal burujabetza osoa: euskal herritar guztien ongizatea bermatzeko bidea.**

Burujabetza osoa aldarrikatzen dugu, gure etorkizunaren jabe bakarrak izan nahi dugulako. Jakina, gure komunitate politikoaren baitan Euskal Herria sentitzeko eta pentsatzeko dauden ikuspegi guztiak errespetatuak izan daitezen bidea ematea bilatzen dugu. Elkarbizitza demokratikoaren oinarria egitasmo politiko guztiak baldintza berdinetan babesteko eta gauzatzeko bideak bermatzea baita.

Baina, gure iritziz, gaur egun burujabetza osoa da euskal herritar guzti-guztien ongizatea bermatzeko bide bakarra. Madrilen edo are urrutiago dauden botere-guneetan euskal herritarren bizitzetan eragiten duten erabakiak hartzen jarraitzen duten bitartean

gure lan eskubideek, gure osasun eskubideek, gure etxebizitza eskubideak eta abar luze batek arrisku larrian jarraituko dute. Bakarrik bertako erakundeak eskumen guztiez hornituz eta erakunde horiek herritarren beharren mesedetan jarriz euskal herritar guztien ongizatea bermatu ahal izango dugu. Gure eredu ekonomiko propioa eraikitzeko, aberastasunaren sorrera eta banaketa bermatzeko, eta tokiko ekonomiatik abiatuta gure herria ekonomia-jarduerarako aukera esparru bihurtzeko, hitz batean, euskal ekonomiaren potentzialtasun guztia garatzeko; tresna politikoak gure eskuetan behar ditugu, bakar bati uko egin gabe. Azken hogeita hamar urteetako ibilbideak argi eta garbi adierazten du: zenbat eta burujabetza maila handiagoa, gero eta ongizate zabalagoa. Ez dugu etorkizunean kontrakoa gertatuko dena pentsatu beharrik. Beraz, burujabetza osoa gure esku izanda, euskal gizarteak ongizate mailarik gorena gozatzeko aukera izango duelakoan gaude.

Nolanahi ere, kontrako egoera gaur egun ezagutzen ari gara, eskumenak galdu ahala – *zenbat eta menpekotasun egoera handiagoa...*– euskal herritar askoren ongizatea amaitzen ari da, euskal gizartearen baitan baldintza duinen azpitik bizi izatera behartutako herritar multzoa gero eta handiagoa eginez.

### **Bosgarrena. Autoeraketa da herritarrek emandako agindu demokratikoa Estatu propioa eraikitzeko tresna bilakatzeko gaitasuna.**

Euskal Autonomia Erkidegoa –Euskal Herriaren zatia izanda- bere buruari emandako ahalmenean oinarrituta, komunitate politiko gisa eratu zen. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal herritarrek beraien buruari komunitate politiko gisa eratzeko ahalmena eman zioten. Prozesu eratzaille horretan aurrera urratsak egiten segitzea proposatzen dugun bezala Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian, prozesu eratzaille bana egitea proposatzen dugu, bakoitza bere abiapuntutik, bere fase eta abiadurekin, prozedura eta era desberdinetan, betiere bertako herritarren adostasunez.

Orain, mundu garaikideak ezarritako erronka berriei –batez ere pertsonak mespretxatzen dituen neoliberalismo basatia nagusi den eremu honetan, justizia sozialean oinarrituta gizarte gisa hazteko egitasmoari, hain zuzen- aurre egiteko eta Estatu Espainolak Euskal Herriari ezarritako ukazioaren eta gure oinarrizko eskubideekiko zapalkuntzaren aurrean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal herritarrek berriro gure buruari eratzeko ahalmena emanez, gaur egun dauzkagun erakundeak eskumenez bete behar ditugu, harik eta burujabetza-egitura instituzional bilakatu arte. Gaur egun dauzkagun erakunde autonomikoak –Estatu Espainoleko erakundeen menpeko erakundeak, hain zuzen ere- burujabetza-egitura bilakatu nahi ditugu, euskal herritar gehiengo zabalak hala erabakiko duenean Estatu propioaren oinarri instituzionala izan daitezen.

Betiere burujabetza osoa –eta ondorioz, euskal herritar guztientzako justizia soziala- bilduko duen tresna instituzional nagusia Euskal Estatua bera izango dela pentsatzen baitugu. Noski, ibilbide hau guztia egiteko modu bakarra herritar gehiengo zabal batekin batera egitea da. Horretarako urrats bakoitza egiterakoan euskal herritarrei galdetu behar zaie, nonbait, beraien bizitzetan eragingo duten erabaki politiko nagusi guztiak beraien esku uzten ohituz. Erabakitzen ohitzen den gizartea demokratikoki oso sendoa izateaz gain, edonondik etorriko zaizkion debekuak, inposizioak eta mehatxuak demokratikoki gainditzen ikasiko duelako.

**Seigarrena. Nazioarteko printzipio eta ebazpenak aintzat hartu beharra: Nazioarteko Komunitatearen aitortza bilatzen dugulako.**

Herri gisa gure etorkizun politikoa libre eta demokratikoki erabakitzeko autoafirmazioa aurreneko urratsa dela ulertuta, gure bide eratzailea jorratzeko orduan herrien autodeterminazio eskubidearen inguruan Nazioarte mailako Erakunde nagusietan jasotako printzipioak kontutan hartu eta jarraitu behar ditugu. Honako hauek dira Nazioarteko Komunitatearen aitortzaren bila ipar-orratza bilakatu behar zaizkigun nazioarteko itunak:

- Nazio Batuen Gutuna Nazio Batuen Erakundea sortzeko izenpetu zen ituna.
- Nazio Batuetako eskubide zibil eta politikoen nazioarteko ituna.
- Europako kooperazio, eta segurtasun konferentziaren bukaera akta.
- Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna.

#### **4. ESTATUS POLITIKO BERRIA: ERABAKITZEKO ESKUBIDEA OINARRI DUEN EGITURA INSTITUZIONAL BURUJABEA**

Gernikako estatutuak bere ibilbidea egin du eta gaur egun, mugarri haren aurrean iritzi politiko desberdinak, eta batzuetan kontrajarriak, izan zituzten kultura politiko desberdinek bat egiten dute bide hori erabat agortuta dagoela adieraztean. EH Bilduk bere jarrera politikoa adieraziz, ez die Gernikako Estatutuak emandako tresnei uko egiten, ezta haietako bati ere. Are gehiago, gure asmoa da menpekotasunezko harremanean jarduteko balio izan duten erakundeak burujabetza gauzatzeko eta garatzeko baliatzea. Erakunde autonomikoak Estatutuak emandako eskumenak garatzeko tresna nagusiak izatearekin batera, komunitate politiko gisa dauzkagun ahalmenen muga ere baitira.

Gainera, gaur egun Estatu Espainolaren lurralde ereduaren krisiak eskualdatutako eskumenak deuseztatze prozesua ere areagotu egin du. Era berean, mundu mailako ekonomiaren krisiak gure gizarteari erronka berriak ezarri dizkio, arrisku larrian dagoen euskal gizarte kohesioari eustea erronka nagusietakoa izanda.



Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritar guztiak alor guztietan baldintza duinetan bizitzeko eta hobetzeko helburu, gaur egun ez dauzkagun tresnak lortu behar ditugu. Gaur egun ez dagoelako dauzkagun tresnez eta baliabideez soilik halakorik bermatzerik. Estatu Espainolarekiko menpekotasun egoerak –gaur egungo autonomia eredia haren gauzapean gisa hartuta- ez digu egoera zail berriari, are gutxiago etorkizun hurbileko erronkei, aurre egiteko aukerarik eskaintzen.

Ondorioz, Euskadik –komunitate politiko gisa ulertuta- gure gizartearen erronka berriei aurre egiteko estatus politiko berria behar du. Gaur egun ez dituen tresnak eta baliabideak –eskumenak eta gaitasunak- emango dizkion estatus politiko berria behar du. Estatus politiko berria, ezinbestean, burujabetza egoera da. Burujabetza egoerak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren beharrezan guztiak egokiro asebetetzeko eskumen eta gaitasun guztiak ekarri behar dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioei, bertan bizi diren herritarren borondate demokratikoaren muga bakarrarekin. Eskumen guztiak eskuratzea eta hauek ahalik eta gehien garatzea baita gaur egun gizarte gisa garatzeko eta aurrera egiteko modu bakarra.

**Beraz, egun indarrean dauden instituzio autonomikoetatik abiatuta, egin beharreko urrats bakoitzaren aurrean herritarren borondate demokratikoan oinarrituz, burujabetza eskuratzeko prozesu gradual eta progresiboa proposatzen ari garen heinean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gizarteari zabaldu beharreko eztabaida politiko nagusiari buruz ari gara.**

**EH Bilduk ez du inola Legebiltzarrak legealdi honetan sortu duen Autogobernuari buruzko Lantaldearen jarduna gutxietsi nahi, baina eztabaida politikoaren dimentsioaren aurrean, ez zaigu nahikoa iruditzen. Gure iritziz, legealdi honetan ez, baina hurrengoan Legebiltzarrean ordezkari izan dezaketen talde politikoei ez ezik, sindikatu eta gizarte mugimenduei ere eztabaidan parte hartzeko aukera zabaldu behar zaie. Halaber, Legebiltzarrak prozesu eratzailea abian jartzeko konpromiso sendoa adierazten duen unean herritarrak haren protagonista bihurtzeko konpromiso zintzoa gauzatzeko bide zehatzak eskaini behar ditu.**

Historiak gizarte gisa eskatzen dizkigun aurrerapausoak nekez egingo ditu instituzio batek bakar-bakarrik, anartean herritar guztiak ikusle.

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoak *-Euskadik-* dituen erakunde autonomikoek erakunde burujabe bilakatzeko asmoz herritar gehiengo zabal-zabal baten babes eta bultzada behar izango dituzte. Horretarako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrek beraien burua hasiera-hasieratik prozesu horren partaide aktibo sentitu behar dute.

Bestalde, ezinbestekoa da burujabetza eskuratzeko adostu behar dugun ibilbide-orriak gaur egun herritar gehienek *-eta batez ere, egoera okerrenetan bizi direnek-* dituzten beharrizan nagusiei erantzutea. Hala, lehentasunak honako hauek lirateke:

- Gizarte segurantzaren sistema propioa eratzeko eta garatzeko ahalmena
- Lan harremanetarako esparru propioa sortzeko ahalmena
- Enplegu politikak garatzeko ahalmen osoa
- Ekonomia eta finantzak antolatzeko ahalmena
- Banku propioa sortzeko ahalmena
- Eredu produktibo osoa garatzeko ahalmena
- Etxebizitza eskubide subjektibo gisa bermatzeko ahalmena
- Osasun sistema unibertsala hobetzeko ahalmena
- Azpiegiturak planifikatu eta erabakitzeko ahalmena
- Ezagutza eta bitarteko publikoetan oinarritutako ikerkuntza eta berrikuntza unibertsala garatzeko ahalmena



- Garapen eredu alternatiboen mesedetako ikerkuntza zabaltzeko ahalmena
- Hezkuntza sistema propioa eratzeko ahalmena
- Euskaraz jakitea eskubide subjektiboa bermatzeko ahalmena
- Justizia administrazio sistema propioa sortzeko eta garatzeko ahalmena
- Espetxe politika propioa gauzatzeko ahalmena
- Herritarren segurtasuna zaintzeko eredu integrala osatzeko ahalmena
- Herritartasuna arautzeko ahalmena
- Gainerako euskal lurraldeekiko harreman instituzionalak zabaltzeko eta eraginkor egiteko ahalmena
- Estatuaren gaineko gune eta erakundeetan ordezkaritza propioa izateko ahalmena

## **5. EUSKAL LURRALDEEN ARTEKO HARREMANAK: BERDINEN ARTEKO HITZARMENEN BIDEA**

Aspalditik Estatu Espainolean dauden euskal lurraldeak politikoki bizkar emanda eratu ziren. Lau euskal lurraldeetako herritarren arteko harreman ekonomiko, kultural eta sozialak erabat naturalak izan arren oraindik aspaldian zatiketa instituzionalaren alde hartutako erabakien ondorioak pairatzen ari gara. Azken lau hamarraldiotan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeek osatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoaren eta

Nafarroako Foru Komunitatearen arteko “harresi politikoak” gero eta garaiagoak egin dira, lurralde zatiketan sakonduz. Gaur egun erronka politiko nagusia da ekonomikoki, kulturalki eta sozialki naturalak diren harremanak eremu politikoan eta instituzionalean ere normalizatzea, bizkar emanda eratu diren eremu administratiboak elkarri begira jartzea, alegia.

Jakina, bakarrik Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko herritarren ongizaterako onuragarriak diren harreman politiko eta instituzionalak suspertzeak bi eremu administratiboen arteko elkarlana ekarri beharko luke. Ekonomia eta kultura lehentasun, alde bateko eta besteko erakunde publikoek maila guztietako lankidetzaz lagundu beharko lukete.

Etorkizunean, lankidetzaz iraunkorraren ondorioz, eta bakarrik Araba, Bizkaia, Gipuzkoa lurraldeetako herritarrek, batetik, eta Nafarroa Garaiko herritarrek, bestetik, hala erabakiko balute, ekonomia arloan –industria, ikerkuntza eta tokiko garapen arloetan batez ere- eta azpiegitura, mugikortasun, ingurumen, hezkuntza eta kultura arloetan elkarlana sustatzeko eta indartzeko asmoz erakunde bateratuak sortzeari ekingo litzaioke.

## **6. EUSKAL ESTATUA SORTZEKO BIDEA**

Gaur egun mundu globalizatuan –normalean finantzei eta kapital- jarioei lotuta, nazio bakoitzeko erakunde demokratikoen gainean dauden botere-gune eta sareen ondorioz burujabetza oro erlatiboa dela sinestarazi nahi bazaigu ere, Estatua da oraindik burujabetza mailarik handiena ahalbidetzen duen tresna juridiko-politiko. Betiere Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal herritarren ongizatea nola bermatu eta garatu

pentساتuz, burujabetza mailarik handienaren bila ez diogu inola Estatu propioa sortzeko bideari ere uko egiten.

Eta gure buruari Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskal herritarren ongizatea bermatu eta hobetzarren tresnarik ukatu ezin diogulako, demokrazia parte-hartzailean eta justizia sozialean oinarritutako Estatu propioa eratzeko hautu politikoa egiten dugu. Euskal Herria den nazioaren zati izateagatik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeetako euskal herritarrok komunitate politiko gisa eratuta, Euskal Autonomia Erkidegoa sortzea erabaki genuen bezala eta autonomia estatutuak emandako egitura instituzionalak burujabetzarako tresna bilakatzeko bidean hurrengo urrats logikoa, gure buruari burujabetza maila gorena emateko asmoz, Estatu propioa sortzea dela pentsa daiteke.